| euskara izanik administrazio honen lan hizkuntza, enpresak administrazioarekin izango dituen ahozko harremanak euskaraz izango dira. Idatzizko harremanak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz izango dira | | lengua de trabajo de esta administración, las relaciones orales de la empresa con la Administración serán en euskera. En cuanto a las relaciones escritas (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas …), serán en euskera o en euskera y castellano. |
| Hizkuntza-eskakizunen betetze-mailaren jarraipena: | | Seguimiento del cumplimiento de los requisitos lingüísticos: |
| Zerbitzua kontratatzea sustatzen duen administrazio-unitateak berak egingo du ezarritako hizkuntza-eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena, gainerako eskakizunen modu eta epe berean. | | La propia unidad administrativa promotora de la contratación del servicio realizará el seguimiento del cumplimiento de los requisitos lingüísticos establecidos, en la misma forma y plazos que el resto de requisitos. |
| Paisaia linguistikoa: Errotulazioak, abisuak, seinaleak eta gainerako komunikazioak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarari lehentasuna emanez. Beharrezkoa denean, piktogramak erabiliko<br>dira mezu ulergarriagoak zabaltzeko. | | Paisaje lingüístico: las rotulaciones, avisos, señales y demás comunicaciones serán euskera o en euskera y castellano, dando prioridad al euskera. Cuando sea necesario, se utilizarán pictogramas para difundir mensajes más comprensibles. |
| Oro har, irizpide hauek jarraituko dira: | | Con carácter general, se seguirán los siguientes criterios: |
| Udalarekiko eta beste eragileekiko harremanak (ahoz zein idatziz) euskaraz izango dira ahal den neurrian. Eta prozesuaren inguruko azken txostena ere euskaraz izango da. | | - Las relaciones con el Ayuntamiento y otros agentes, tanto oralmente como por escrito, se realizarán en euskera. Y el informe final sobre el proceso también será en euskera. |
| Talde eragilea eta hezkuntza mahaia dinamizatzeko orduan, euskararen erabilera bultzatuko da eta euskara ulertzen duten guztiekiko harremanak euskaraz izango dira, bai ahoz eta bai idatziz. | | - A la hora de dinamizar el Grupo Motor y la Mesa de Educación, se potenciará el uso del euskera y las relaciones con todas las personas que lo entiendan serán en euskera, tanto oralmente como por escrito. |
| Ahozkoari dagokionez, oro har lehen hitzak beti euskaraz izango dira eta jarrera proaktiboa izango da; hau da, mezu hartzaileak euskara ulertzen badu euskaraz jarraitzeko gonbita egingo zaio (“ahobizi” jarrera). | | En cuanto a la expresión oral, en general las primeras palabras serán siempre en euskera y la actitud será proactiva; es decir, si la persona receptora entiende el euskera se le invitará a seguir en euskera (actitud "ahobizi"). |
| Aurkezpenak eta agurrak euskara hutsean egingo dira. Uneren batean, elebitan egiten badira, euskarari lehentasuna emango zaio (lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz). | | - Las presentaciones y saludos se realizarán íntegramente en euskera. En algún momento, si se realizan en bilingüe, se dará prioridad al euskera (primero en euskera y después en castellano). |
| Euskara ez den beste hizkuntza baterako itzulpena behar duten herritarrei teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak eskainiko dizkie enpresak (idatzia ulertzeko itzultzaile neuronala, interpretaritza egiteko *telegram* aplikazioa edo antzerako baliabideren bat…). | | - La empresa ofrecerá a la ciudadanía que necesite traducción a otra lengua distinta del euskera los recursos que ofrecen las nuevas tecnologías (traductor neuronal para la comprensión de texto escrito, aplicación *telegram* para la interpretación, o cualquier otro medio similar...). |



CSV: 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 09/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/08/2024 12:03:03
EXPEDIENTE :: 2024KIRO00008
Esp.Data: 06/08/2024
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

| | | |
|---|---|---|
| **21.4. <u>Kontratua gauzatzean, enpresa esleipendunak ondorengo baldintza bereziak bete beharko ditu, Segurtasun eta Lan-osasun arloetan</u>:** | | **21.4. <u>La empresa contratista deberá de cumplir las siguientes condiciones especiales de ejecución, en materia de Seguridad y Salud Laboral:</u>** |
| 1.- Laneko arriskuak prebenitzeko plan espezifikoa aurkeztuko du, kontratua gauzatzeko egin beharreko lanei dagokienez. Horretarako, esleipendunak udalerrian egingo dituen lanerako Segurtasun eta Osasun Plan bat egin eta aurkeztu beharko du eta Udalak onartu egin behar du plan hori. | | 1.- Presentar un plan específico de prevención de riesgos inherentes a los trabajos incluidos en el contrato, para lo cual, la parte adjudicataria deberá confeccionar y presentar para su aprobación por el Ayuntamiento, un Plan de Seguridad y Salud para los trabajos a realizar en el municipio. |
| 2.- Prebentzio planaren arabera, enpresaren jardueran eta erabakietan lan arriskuen prebentzioa aintzat hartzeko beharrezko prestakuntza jaso duten eta zuzendaritza-lanak egingo dituzten langileak izango ditu esleipendunak. | | 2.- Disponer de personas que, conforme al plan de prevención, ejercen funciones de dirección y han recibido la formación necesaria para integrar la prevención de riesgos laborales en el conjunto de sus actividades y decisiones. |
| 3.- Segurtasunerako eta lan-osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen zerbitzuak prestatzean aldian behingo ikuskapenak egiteko prozedura bat izango du esleipendunak eta, horretarako, Prebentzio Planean jasotako egiaztapen espezifikoa egiteko prozeduran ezarritako jarraibideak jarraituko ditu. Prozedura horretan Arriskuen Ebaluazioan/Segurtasun eta Osasun Planean aurreikusitako babes neurrien aldian behingo ikuskapena sartu beharko da, baita norbera babesteko ekipamenduen egiazko erabilera ere. | | 3.- Disponer de un procedimiento de inspecciones periódicas en la prestación de servicios cuya ejecución pueda generar especial riesgo para la seguridad y salud laboral, a través de su organización preventiva siguiendo las pautas establecidas en el procedimiento de comprobación específico del Plan de Prevención. En dicho procedimiento deberá incluirse la comprobación periódica de las medidas de protección colectiva previstas en la Evaluación de Riesgos/Plan de Seguridad y Salud, así como el uso efectivo de los EPIs. |
| 4.- Aurreko puntuan aurreikusitakoari dagokionez, enpresak txosten bat aurkeztuko du urtero, non egindako aldian behingo ikuskapenen eta egiaztapenen gaineko informazioa jasoko den. | | 4.- A la vista de lo previsto en el punto anterior, la empresa presentará un informe anual que recoja la información relacionada con las inspecciones y comprobaciones periódicas realizadas. |
| | | |
| **21.5. <u>Kontratua gauzatzean, enpresa esleipendunak ondorengo baldintza bereziak bete beharko ditu, ingurumen arloan:</u>** | | **21.5. <u>La empresa contratista deberá de cumplir las siguientes condiciones especiales de ejecución, en materia medioambiental:</u>** |
| 1. Udalak bultzatutako Legazpi Klima 2030, Klima-aldaketaren eta Garapen Jasangarriaren Estrategiaren irizpideekin bat etorriz, enpresa esleipendunak honako konpromisoa hartzen du: zerbitzuaren garapenean jasangarritasuneko eta klima-aldaketaren aurka egiteko irizpideak aplikatzea. | | 1. En coherencia con los criterios de la Estrategia de Cambio Climático y Desarrollo Sostenible Legazpi Klima 2030 impulsada por el Ayuntamiento, la empresa adjudicataria se compromete a aplicar criterios de sostenibilidad y lucha contra el cambio climático en el desarrollo del Servicio. |



CSV: 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 09/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/08/2024 12:03:03

EXPEDIENTE :: 2024KIRO00008
Esp.Data: 06/08/2024
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

| | | |
|---|---|---|
| 2. Horretarako, neurri zehatz hauek hartuko ditu horretarako: ahalik eta hondakin gutxien sortzea, sortuko diren hondakinak berrerabiltzea eta birziklatzea, baliabide energetikoak aurreztea (energia, ura, etab.) kutsadura atmosferikoa eta akustikoa murriztea, otorduetan, askarietan, edariak banatzean berrerabil daitekeen baxera erabiltzea, karteletan eta liburuxketan paper birziklatua erabiltzea eta ingurumena zaintzeko hezkuntza sustatzea. | | 2. Para ello tomará las siguientes medidas específicas: generar la menor cantidad de residuos posible, reutilizar y reciclar los residuos que se produzcan, ahorrar recursos energéticos (energía, agua, etc.), reducir la contaminación atmosférica y acústica, emplear vajilla reutilizable en comidas, meriendas, reparto de bebidas, utilizar papel reciclado en los carteles, folletos y fomentar una educación para el cuidado del medio ambiente. |
| Laneko dokumentuak formatu elektronikoan entregatu behar dira posta elektronikoaren edo zerbitzari baten bidez (dokumentuak deskargatzeko estekak dituztela, edo ftp bidez), edo, bestela, USB edo antzerako euskarriren batean, betiere birgrabagarriak eta irekiak, berriro erabili ahal izateko. | | Los documentos de trabajo deben entregarse en formato electrónico a través del correo electrónico o de un servidor (con enlaces para la descarga de documentos, o mediante ftp) o, en su defecto, en algún soporte USB o similar, siempre regrabables y abiertos para su reutilización. |
| Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa bada edo kontratuaren arduradunak hala eskatzen badu (laneko txostenak, bileretako dokumentuak, etab.), adjudikazio-hartzaileak hau egin behar du: | | En el caso de que sea necesaria la impresión de documentos o lo solicite la persona responsable del contrato (informes de trabajo, documentos de reuniones, etc.), la adjudicataria deberá: |
| - Kontratuaren arduradunarekin adostu zein dokumentu inprimatu behar diren,<br>- Ahalik eta ale gutxien inprimatu, beharrei egokituz (bilera bateko partaide-kopurua, etab.), kopiarik ez dadin sobera geratu.<br>- % 100 birziklatutako papera erabili (% 65, gutxienik, kontsumitu ondokoa) edo baso kudeaketa iraunkorreko edo birziklatutako zuntzen edukia gutxienik % 20koa duen paper birziklatu gabea.<br>- Ahal den heinean, dokumentuak alde bietan eta zuri-beltzean inprimatu, ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko).<br>- Hondakinen berrerabilpena edota gaikako bilketa bermatu, zatiak bereiziz, behar bezala kudeatzeko baliabideak izanik. | | - Acordar con la persona responsable del contrato los documentos que se han de imprimir,<br>- Imprimir el menor número posible de ejemplares, ajustándose a las necesidades (número de participantes de la reunión, etc.), para que no sobren copias.<br>- Utilizar papel 100% reciclado (mínimo 65% de postconsumo) o papel no reciclado de gestión forestal sostenible o con un contenido mínimo del 20% de fibras recicladas.<br>- En la medida de lo posible, imprimir los documentos por ambas caras y en blanco y negro, con la menor encuadernación posible y sin tapas de plástico (para facilitar su reciclaje).<br>- Garantizar la reutilización y/o recogida selectiva de residuos, mediante la separación de las fracciones, disponiendo de recursos para su correcta gestión. |
| **21.6. <u>Kontratua gauzatzean, enpresa esleipendunak ondorengo baldintza bereziak bete beharko ditu, datuak babesteari buruz:</u>** | | **21.6. <u>La empresa contratista deberá de cumplir las siguientes condiciones especiales de ejecución, en materia de protección de datos:</u>** |
| Nolanahi ere, kontratistak Estatuko eta Europar Batasuneko datuen babesaren arloko araudia bete beharko du. | | La parte contratista deberá someterse, en todo caso, a la normativa nacional y de la Unión Europea en materia de protección de datos. |



CSV: 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 09/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/08/2024 12:03:03
EXPEDIENTE :: 2024KIRO00008
Esp.Data: 06/08/2024
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

| | | |
|---|---|---|
| **Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz 9/2017 Legearen 202.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza horiek ez betetzeak zigorrak ezartzea ekar dezake edo kontratua etetea eragin dezake, 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.** | | **Estas condiciones tienen el carácter de obligación contractual esencial, por lo que, de conformidad con lo establecido en el artículo 202.3 de la Ley 9/2017, su incumplimiento podrá ser considerado causa de imposición de penalidades o de resolución del contrato a los efectos previsto en el art. 211.f) de la Ley 9/2017.** |
| **22. KLAUSULA. Alderdien eskubideak eta betebeharrak** | | **CLÁUSULA 22. Derechos y obligaciones de las partes** |
| **22.1 Kontratistari ordaintzea** | | **22.1 Abonos al contratista** |
| Kontratuaren prezioa kobrantza-agiri egokia aurkeztu eta onartu ondoren ordainduko da. | | El pago del precio del contrato se realizará contra la presentación y conformidad del correspondiente documento cobratorio. |
| Fakturak formatu elektronikoa izango du, Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legean jasotakoaren arabera. | | La factura deberá presentarse en formato electrónico en los supuestos que fija la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de Impulso a la Factura Electrónica y Creación del Registro Contable de Facturas del Sector Público. |
| **22.2 Lan-obligazioak, gizarte arlokoak eta gardentasunekoak** | | **22.2. Obligaciones laborales, sociales y de transparencia** |
| Kontratistak lan eta gizarte segurantza arloetan indarrean dagoen araudia betetzeko obligazioa du. Modu berean, honako legerietan jasotakoa betetzeko obligazioa du: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege-dekretuan jasotakoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoa, Lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean jasotakoa, Prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege-dekretuan jasotakoa eta kontratua gauzatuko den epean zehar promulgatuko diren arauetan jasotakoa. | | La parte contratista está obligada al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral y de Seguridad Social. Asimismo, está obligada al cumplimiento del Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, sobre efectiva de mujeres y hombres, de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, sobre Prevención de Riesgos Laborales, y del Reglamento de los Servicios de Prevención, aprobado por Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, así como de las normas que se promulguen durante la ejecución del contrato. |



CSV: 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 09/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/08/2024 12:03:03

EXPEDIENTE :: 2024KIRO00008
Esp.Data: 06/08/2024
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

| | | |
|---|---|---|
| Modu berean, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuaren esleipendunak aipatu arauan, eta udal mailan emango diren arauetan, aurreikusitako obligazioak betetzeko nahitaezko informazio osoa eman behar dio Administrazioari, hark hala eskatuz gero. | | Asimismo, de conformidad con lo establecido en el artículo 4 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información y buen gobierno, la parte adjudicataria del contrato está obligada a suministrar a la Administración, previo requerimiento, toda la información necesaria para el cumplimiento de las obligaciones previstas en la citada norma, así como en aquellas normas que se dicten en el ámbito municipal. |
| **22.3 Berme-epea**<br>Kontratuaren helburua **2 urteko** berme-epeari lotuko zaio, lana jaso edo onartuko den egunetik kontatzen hasita. Epe horretan Administrazioak, egindako lana hura gauzatzeko eta betetzeko ezarritako aginduetara eta Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian jasotakora egokitzen dela egiaztatu ahal izango du. Egindako lana zalantzan jarri gabe berme-epea igaro ondoren, iraungitzat emango da kontratistaren erantzukizuna.<br><br>Berme-epean zehar egindako lanetan akatsak edo bizioak daudela egiaztatuko balitz, kontratazio organoak eskubidea izango du kontratistari horiek konpon ditzala eskatzeko. | | **22.3 Plazo de garantía**<br>El objeto del contrato quedará sujeto a un plazo de garantía de **2 años** a contar desde la fecha de recepción o conformidad del trabajo, plazo durante el cual la Administración podrá comprobar que el trabajo realizado se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento y a lo estipulado en el presente Pliego y en el de Prescripciones Técnicas. Transcurrido el plazo de garantía sin que se hayan formulado reparos a los trabajos ejecutados, quedará extinguida la responsabilidad del contratista.<br>Si durante el plazo de garantía se acreditase a la existencia de vicios o defectos en los trabajos efectuados el órgano de contratación tendrá derecho a reclamar a la parte contratista la subsanación de los mismos. |
| **22.4. Kontratua indargabetzeko kausa izan daitezkeen funtsezko obligazioak.** | | **22.4. Obligaciones esenciales que pueden ser causa de resolución del contrato.** |
| Ondorengo hauek izango dira kontratua betetzeko funtsezko obligazioak: | | Tendrán la condición de obligaciones esenciales de ejecución del contrato, las siguientes: |
| a. Esleipendunak aurkeztutako proposamenean jasotakoa bete beharko du, kontraturako ezarri diren esleipen-irizpideen arabera baloratu den guztiari dagokionez. | | a. El cumplimiento de la propuesta de la parte adjudicataria en todo aquello que haya sido objeto de valoración de acuerdo con los criterios de adjudicación establecidos para el contrato. |
| b. Esleipendunak azpikontratazioari eta kontratua gauzatzeko baldintza bereziei buruz administrazio-baldintza zehatzen agiri honetan jasotako obligazioak bete beharko ditu. | | b. Las obligaciones establecidas en el presente pliego de cláusulas administrativas particulares en relación con la subcontratación y las condiciones especiales de ejecución. |



CSV: 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 09/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/08/2024 12:03:03

EXPEDIENTE :: 2024KIRO00008
Esp.Data: 06/08/2024
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

| | | |
|---|---|---|
| c. Esleipendunak, kontratua betetzeko giza baliabideak jartzeari dagokionez administrazio-baldintza zehatzen agiri honetan jasotako obligazioak bete beharko ditu. | | c. Las obligaciones establecidas en el presente pliego de cláusulas administrativas particulares en relación con la adscripción de medios personales a la ejecución del contrato. |
| d. Esleipendunak, indarrean dagoen araudian eta segurtasun- eta osasun-planean jasotako segurtasun- eta osasun-neurriak zorrotz bete beharko ditu. | | d. El cumplimiento estricto de las medidas de seguridad y salud previstas en la normativa vigente y en el plan de seguridad y salud. |
| d. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 122.2 artikuluan datuen babesari buruz aurreikusitakoa betetzea. | | d. El cumplimiento de lo previsto en el artículo 122.2 de la LCSP 9/2017 en relación a la protección de datos. |
| **23. KLAUSULA. Azpikontratazioa** | | **CLÁUSULA 23. Subcontratación** |
| Kontratuaren helburu diren prestazio osagarrien azpikontratazio partziala onartzen da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 215. artikuluan ezarritako baldintzetan eta terminoetan. | | Se autoriza la subcontratación parcial de las prestaciones accesorias objeto del contrato en los términos y con las condiciones que establece el artículo 215 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. |
| Azpikontratazioa ondorengo oinarrizko baldintzak betez egin beharko da: | | La subcontratación deberá realizarse cumpliendo los requisitos básicos siguientes: |
| a) Esleipendunak, egin nahi duen azpikontratu bakoitzaren gaineko ondorengo datuak jakinaraziko dizkio Udalari aldez aurretik eta idatziz: | | a) Comunicación previa y por escrito al Ayuntamiento del adjudicatario/a de los datos siguientes en relación con cada subcontrato que pretenda realizar: |
| - Azpi-kontratista zein den, bere datu pertsonalak, gaitasuna eta kaudimena.<br>- Azpi-kontratistak kontratuko zein alderdi gauzatuko dituen.<br>- Azpikontratatuko diren prestazioen zenbatekoa. | | - Identificación del/a subcontratista, con sus datos de personalidad, capacidad y solvencia.<br>- Identificación de las partes del contrato a realizar por el/a subcontratista.<br>- Importe de las prestaciones a subcontratar. |
| b) Ezingo dira Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna galdu duten pertsonak edo enpresak azpikontratatu. Modu berean, ezingo dira azpikontratu nahi diren prestazio zehatzak eskaintzeko behar den gaitasuna, kaudimena eta gaikuntza profesionala ez duten pertsona eta enpresak azpikontratatu. | | b) No podrá subcontratarse con personas o empresas inhabilitadas para contratar con la Administración ni carentes de la capacidad, solvencia y habilitación profesional precisa para ejecutar las prestaciones concretas que se subcontratan. |



CSV: 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 09/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/08/2024 12:03:03

EXPEDIENTE :: 2024KIRO00008
Esp.Data: 06/08/2024
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

| | | |
|---|---|---|
| c) Azpikontratazioa egingo duen kontratistak, azpikontratatuko dituen lanak hasi aurretik lan horiek gauzatuko dituzten langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela egiaztatu beharko du, ezkutuko enplegua erregularizatu eta kontrolatzeko eta etxebizitzen zaharberritzea sustatzeko neurriei buruzko apirilaren 29ko 5/2011 Errege Lege Dekretuan ezarritakoa betetze aldera. | | c) El/a contratista que subcontrate deberá comprobar con carácter previo al inicio de los trabajos que subcontrate, la afiliación y alta en la Seguridad Social de los trabajadores y trabajadoras que vayan a realizar los trabajos en cuestión en cumplimiento de lo establecido en el Real Decreto-ley 5/2011, de 29 de abril, de medidas para la regularización y control del empleo sumergido y fomento de la rehabilitación de viviendas. |
| d) Kontratistak azpikontratazioaren langileen ordezkariak informatu beharko ditu, lan legerian ezarritakoaren arabera. | | d) El contratista o la contratista deberá informar a los/as representantes de los trabajadores y trabajadoras de la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral. |
| e) Azpi-kontratistek kontratista nagusiaren aurrean bakarrik geratuko dira behartuta Udalaren aurrean kontratua gauzatzearen erantzukizun osoa bere gain hartzera; eginbehar hori administrazio-baldintza zehatzen agirian eta kontratuan jasotakoaren arabera egingo da. Baina Udalak azpikontratazio horiek daudela jakiteak ez du kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa aldatzen. | | e) Los/as subcontratistas quedarán obligados/as sólo ante el contratista o la contratista principal que asumirá la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente al Ayuntamiento, con arreglo estricto a los pliegos de cláusulas administrativas particulares y a los términos del contrato, sin que el conocimiento por parte del Ayuntamiento de la existencia de subcontrataciones altere la responsabilidad exclusiva del/a contratista principal. |
| f) Kontratistak azpi-kontratistek gauzatuko dituzten prestazioengatik adostutako prezioa ordaindu beharko die, merkataritzako eragiketen berankortasunaren aurka borroka egiteko neurriak jartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan gutxienez. Hori betetzen dela bermatzeko, Udalari bidaliko zaion fakturazio bakoitzarekin batera, kontratistak kontratu honen baitan azpikontratatu dituen enpresek edo autonomoek aurreko hilabetean egin dituzten lanak ordaindu dituela egiaztatuko duen agiria aurkeztu beharko du. | | f) El contratista o la contratista deberá abonar a los/as subcontratistas el precio pactado por las prestaciones que realicen como mínimo en los plazos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para garantizar tal cumplimiento, el contratista o la contratista con cada facturación al Ayuntamiento deberá aportar el justificante del pago de los trabajos realizados en el mes anterior por las empresas o autónomos que haya subcontratado en el marco del presente contrato. |
| | | |
| **24. KLAUSULA. Kontratu-aldaketak** | | **CLÁUSULA 24. Modificaciones contractuales.** |
| Administrazioak zerbitzuaren ezaugarriak alda ditzake baina soilik interes publikoko arrazoiengatik eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 203tik 207ra bitarteko artikuluetan aurreikusitako egoerak ematen badira. | | La Administración podrá modificar las características del servicio contratado únicamente por razones de interés público y si concurren las circunstancias previstas en los artículos 203 a 207 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. |
| | | |



CSV: 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 09/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/08/2024 12:03:03

EXPEDIENTE :: 2024KIRO00008
Esp.Data: 06/08/2024
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

| | | |
|---|---|---|
| **25. KLAUSULA. Kontratistaren ondorengoa izatea** | | **CLÁUSULA 25. Sucesión en la persona del contratista o la contratista** |
| Enpresak edo horien jarduera-adarrak elkartu, bereizi, ekarri edo eskualdatuz gero, kontratuak indarrean jarraituko du ondoriozko erakundearekin. Kasu horietan ondorengoak bere gai hartuko ditu kontratuaren eskubideak eta obligazioak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 98. artikuluan eskatutako baldintzak ematen badira. | | En los casos de fusión, escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas continuará el contrato vigente con la entidad resultante, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, si se producen las condiciones exigidas en el artículo 98 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. |
| Kontratistaren betebeharra da nortasun juridikoari eragin lekiokeen edozein aldaketa Administrazioari jakinaraztea, eta fakturak ordaintzeko legezko epea eten egingo da subrogazioaren baldintzak betetzen direla egiaztatu arte. | | Es obligación del contratista o la contratista comunicar fehacientemente a la Administración cualquier cambio que afecte a su personalidad jurídica, suspendiéndose el cómputo de los plazos legalmente previsto para el abono de las facturas correspondientes hasta que se verifique el cumplimiento de las condiciones de la subrogación. |
| Kontratua esleituko zaion erakundeak izan beharreko kaudimen-baldintzak betetzen ez baditu ezingo zaio subrogatu eta, kasu horretan, kontratistari leporatutako arrazoiengatik amaitutzat emango da kontratua. | | Si no pudiese producirse la subrogación por no reunir la entidad a la que se atribuya el contrato las condiciones de solvencia necesarias, se resolverá el mismo, considerándose a todos los efectos como un supuesto de resolución por culpa del contratista o la contratista. |
| | | |
| **26. KLAUSULA. Kontratua lagatzea** | | **CLÁUSULA 26. Cesión del contrato** |
| Kontratua laga ahal izango da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 214. artikuluan jasotako mugekin eta baldintzekin: | | El contrato podrá ser objeto de cesión con los límites y requisitos del artículo 214 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público: |
| a) Kontratazio-organoak, aurretik, eta berariaz, baimendu egin behar du lagapena. | | a) Que el órgano de contratación autorice, de forma previa y expresa, la cesión. |
| b) Lagatzaileak, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20a eginda izan behar du. | | b) Que el cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato. |
| c) Lagapenaren hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du eta kontratuaren gauzatze-fasearen arabera eskatuko zaion kaudimena izan behar du; halaber, behar bezala sailkatuta egon behar du baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio eta ezingo da kontratatzeko debekuetan sartuta egon. | | c) Que el cesionario tenga capacidad para contratar con la Administración y la solvencia que resulte exigible en función de la fase de ejecución del contrato, debiendo estar debidamente clasificado si tal requisito ha sido exigido al cedente o la cedente, y no estar incurso en una causa de prohibición de contratar. |
| d) Esleipendunaren eta lagapenaren hartzailearen artean eskritura publikoan jaso beharko da lagapena. | | d) Que la cesión se formalice, entre el adjudicatario o la adjudicataria y el cesionario o la cesionaria, en escritura pública. |



CSV: 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 09/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/08/2024 12:03:03

EXPEDIENTE :: 2024KIRO00008
Esp.Data: 06/08/2024
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

| | | |
|---|---|---|
| **27. KLAUSULA. Kontratua ez betetzeagatik jarri beharreko zigorrak** | | **CLÁUSULA 27. Penalidades por Incumplimiento** |
| **27.1 Atzerapenengatiko zigorrak** | | **27.1 Penalidades por demora** |
| Esleipenduna behartuta dago kontratua gauzatzeko epea eta kontratazio-organoak ezarritako gainerako epe partzialak betetzera. | | La parte adjudicataria queda obligada al cumplimiento del plazo de ejecución del contrato y de los plazos parciales fijados por el órgano de contratación |
| Esleipendunak, berari leporatutako arrazoiengatik, ezarritako epe osoa igaro eta hornidurak eman gabe baitu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi edo egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000,00 euroko, BEZ kanpo. | | Cuando el contratista o la contratista, por causas imputables al mismo/a, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 0,60 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido. |
| Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren (% 5) multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko. | | Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5% del precio del contrato, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades. |
| Kontratistak, bere erruagatik, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala horretarako ezarri den epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo lehen ezarritako zigorrak ezartzea. | | Cuando el contratista o la contratista, por causas imputables al mismo/a, hubiere incumplido la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución o por la imposición de las penalidades establecidas anteriormente. |
| **27.2 Zigorrak, prestazioa ez gauzatzeagatik edo akatsez gauzatzeagatik.** | | **27.2 Penalidades por incumplimiento o cumplimiento defectuoso de la prestación** |
| Oso larritzat joko da, esleipendunak baldintza zehatzen agiri honetan kontratua gauzatzeko 21. klausulan jasotako baldintza berezietako edozein ez betetzea. Halaber oso larritzat joko da 22. klausulan ezarritako obligazioak ez betetzea. | | Se consideran muy graves los incumplimientos por parte de la parte adjudicataria de cualquiera de las condiciones especiales de ejecución establecida en la cláusula 21 de este pliego de cláusulas particulares, así como de las obligaciones establecidas en la cláusula 22. |
| Ez betetze horiek kontratua amaitzeko arrazoia izan daitezke, honako kasuetan izan ezik: egindakoa gauza isolatua dela eta konpondu egin daitekeela uste denean eta kontratua amaitzea dagokion zerbitzuaren interesaren kalterako izan daitekeenean; azkeneko kasu horretan kontratua amaitu ordez dagokion zigorra ezarriko da. | | Estos incumplimientos serán causa de resolución del contrato, salvo que se considere que la actuación es aislada y susceptible de reconducción, y que la resolución del contrato no resulta conveniente para el interés del servicio en cuestión, en cuyo caso se sustituirá por la penalización correspondiente. |



CSV: 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E80007BC9000Z8F7E4V3Q5G4A9J3R8M8D0P9H8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 09/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/08/2024 12:03:03

EXPEDIENTE :: 2024KIRO00008
Esp.Data: 06/08/2024
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

| | | |
|---|---|---|
| Kontratuaren ez-betetze oso larri horiek zigor hertsagarriak ezartzea ekarriko dute berekin: esleipen-prezioaren % 5, BEZ kanpo, arau-hauste bakoitzeko eta/edo epea beteko ez den egun bakoitzeko, larritasunaren, araua behin eta berriz hautsi denaren eta araua haustean fede txarra egon denaren arabera. | | Estos incumplimientos contractuales muy graves conllevarán la imposición de las penalidades coercitivas de hasta el 5% del precio de adjudicación IVA excluido, por cada infracción y/o día de incumplimiento de plazos en función de gravedad, reincidencia y mala fe en la comisión de la infracción. |
| Kontratistak azpikontratazio arloan ezarritako obligazioak ez betetzeak, azpikontratatutako zenbatekoaren % 5eko zigorra ezartzea ekarriko du berekin eta behin eta berriz ez betetzea kontratua amaitzeko arrazoia izango da. | | El incumplimiento por parte del contratista o la contratista de las obligaciones establecidas en la materia de subcontratación, conllevará una penalización de hasta 5% del importe de lo subcontratado, siendo su reiteración causa de resolución del contrato. |
| Kontratistak kontratuko beste obligazioetako edozein ez betetzeak edo akatsez betetzeak, kontratuko prezioaren % 5eko zigor hertsagarria ekarriko du berekin, larritasun handiagoa edo txikiagoaren arabera eta behin eta berriz obligazio horiek betetzen ez baditu. | | El incumplimiento por parte de la parte adjudicataria de cualquier otra de sus obligaciones contractuales o su cumplimiento defectuoso, conllevará igualmente una multa coercitiva e hasta el 5% del precio del contrato, en función de su mayor o menor gravedad y reincidencia. |
